

- ***Itzala***
- **Aurkezpena**
- **2026-04-21**
- **Donostiako Udal Liburutegia**

Portugal, 2023ko maiatza

Hogeita bi urteren ostean, gaixotasunak hesi berria jarri zion nire gorputzari, krisialdi gogorren maiztasuna areagotzen zuen heinean, ondorio ezagunak ere, geroz eta sakonagoak bihurtu baitzituen; tartean, ziurgabetasunak sortutako beldurra eta dolua.

Adi jarri nintzen gorputzaren gorabeheretan nire kezken erantzunak aurkitu nahian, baina horren ezaguna nuen isiltasunaren ondoan, balizko erantzun bat ere hasi zen indarra hartzen: adina. Berrogeita hamar urte beteko nituen, eta horrek lurrikara biderkatzen zuen. Zer nolako etorkizuna ote nuen zain?

Saiatu nintzen nire esku zegoena zaintzen: kirola, elikadura, atsedena, eta eguneroko zorientasuna. Gaixotasunak, ordea, maiz, dolua dakar berarekin, maite dugunari uko egin beharra, eta arrisku handi bat: tristura. Felipe Juaristik *Idia mihian* liburuan honela dio: “Tristezia gure uharte barruko erbestea da; gure gorputza du bahitzen, gure ikusmena laburtzen. Isolatzen gaitu.” Iraganeko bizipenek erakutsi zidaten ezin nuela begi-bistatik galdu gaixotasunaren lurraldeak duen zaintzaile beldurgarri hori, tristura den zakur beltz ankerra. Urte asko daramatzagu elkarki zuzen begira, eta aspaldi erabaki nuen bazkarik ez eskaintzea, haziko balitz osorik irentsiko baininduke eta iluntasun bete-betean murgildu.

Hala ere, tristezia urruntzea ez da nahikoa zoriontsu izateko. Bada nire lurraldean kantoi-harri bat, beti nire euskarri, oinarri eta sostengu izan dena: literatura. Iaz, gaixotasunaren lurrikarak oinarri hori ere dardarka ipini zuen, pentsatzea, irakurtzea eta idaztea hilabete luzez eragotzi baitzidan. Zer nolako etorkizuna ote nuen zain?

Bizitzen ikasteko saiakeran aurkitu ninduen Uxue Razquinek eta hiru galdera bota zizkidan, lagun den itzalak bakarrik egin ditzakeenak: “zer moduz zaude?”; “zer moduz eskuak, idaztean?”; “inoiz pentsatu al duzu gaixotasunaren inguruan idazterik?”. Handik egun batzuetara itzuli zen iradokizunaren oihartzuna nire burura. Eta ondoren, galderen arrosarioa: zergatik, norentzat, zertarako, nola, noiz... Erronkari erantzuteko izuak ez zuen gonbidapena ezabatu.

Nire egungo egoerak laster alboratu du ohiko saiakera egiteko ahalmena, eta “nahi eta ezin” hori onartu dudanean hasi naiz ohitura berri bat hartzen: Portugaleko hondartza luze honetan, joan-etorrian, gorputzak hiru ordu laurden eskaintzen dizkit txanpon beraren aurkia eta ifrentzua diren gaien inguruan askatasunez hausnartzeko, gogoetak idazteko eta bidean ustekabeen topatu ditudan idazle eta liburuekin harritu eta ikasteko;

nire barrunbea itzalpetzeko. Ez dut helbururik, ezta idatzi beharreko liburu baten ardurarik ere; gaixotasunak ametsetako saiakeraren aukera zapuztean, bide berri bat erakutsi dit, askeagoa.

Donostia, 2026ko apirila

Hiru urte luze igaro dira.

Urrun dago Portugaleko hondartza; urrun eta horren gertu bide honen hasierako egunak... Gaur, nire oroimen ulergaitzean, maizegi huts egiten didan gune misteriotsu horretan aurkitzen ditut hondartzako oroitzapenak: urrun eta gertu, ekaitz oldarkorrak, itsaso zabalean agertu eta arrantzale auzoa kolpatzen zutenak; horren urrun eta horren gertu, udaberriko eguzkitan, María Zambranoren alboan hartutako kafeak.

Gaur, gure logelan, ez dut ingurura begiratu behar zuk, “itzalpetzen nauzun itzal beltza”k, nire ondoan jarraitzen duzula sentitzeko. Bizi oro zure egiten saiatzen zara. Atzoko oinazeak iragarri zidan niri garai batean Rosalía de Castrok sentitutako itxaropen zapuztua:

*Alde egina zarela uste eta,
eguzkian ageri zatzaizkit,
eta izarra zara ñirñirka,
eta haizea zara ufaka.*

*Kanturik bada, zu kantari,
negarrik bada, zu negarrez,
eta errekaaren marmarra zu,
eta gaua zu eta goiza.*

Eta otoi egin dut argiak idatz ditzan aurkezpen honetarako hitzak, pentsamendua ilunduko duen gandurik ager ez dadin.

Gainbegirada bota diot guztien begietara liburu bat den lan honi. Niretzat, bide izaten jarraitzen du; badakit tirriki-tarraka hausnarrean jarraituko dudala aurrera, gainerako idazleen liburuak lagun. Edo horixe nahi nuke, bederen.

Eloy medikuak ez du argirik sentitzen, baina barnean du diagnosi berri baten itxaropena, baita bizitza jasangarriago egingo digun sendagai batena ere. Niretzat, erronka, egun bakoitza da; liburuan diodan bezala, bizitza osoaren itxura hartzen duen egun bakoitza. Ez dut nahi medikuaren kezka nitaz jabetu dadin. Nahikoa dut gorputza garrasika, Rosalía de Castroren bizipena, gaixo guztiena, aldarrikatzeko:

*Orotan zaude eta oro zara,
nigan eta niretzat zara bizi,
eta ez nauzu inoiz utziko,
beti itzalpetzen nauzun itzala.*

Gaur, itxaropena argian ipintzen dut: itzalpetu ditzala hitzak, irakurtzeko, pentsatzeko, ikasteko, idazteko; itzalpetu nazala, hitzik gabe ere, zoriontsu izaten laguntzeko.